



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2009-06-17**

VII. URTEA 1.730. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lanean genero arrazoiengatik dauden diskriminazioei erantzuteko gida kalean

TOLOSA Atzo aurkeztu zuten Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa erakundeak eginiko lana

HELBURUA «Modu errazean, lanean eman daitezkeen egoeren aurrean ditugun eskubideen berri» eman nahi du 3



Jokin Bildarratz, Maite Erro eta Onintza Lasa, atzo Tolosan eginiko aurkezpenean. I.T.

III. Gorostidi Harria Txapelketa igande honetan

ADUNA Irigoien eta Ostolaza ariko dira harriarekin; Joxe Mari Mendizabal, aizkorarekin 6

JOSE MANUEL LULUAGA TOLOSA CF-KO ENTRENATZAILEA

«Amaierara arte borrokatu dugula da garrantzitsuen»

TOLOSA Denboraldi ona egin dute aurten Tolosa CFkoek, baina gutxigatik ez dute lortu helburua betetzea, hau da, mailaz igotzea 4

KOLDO ARSUAGA TAKE-KO LEHENDAKARIA

«Indartsu hastea erabaki genuen, eta hori ordaindu egin beharra izan dugu»

TOLOSA Partida gehienak irabaziz hasi ziren Bide Bide Ibiza saskibalo taldekoak, baina aurrera egin ahala, beherantz joan ziren 7



Villabonako Olaederra kiroldegian izan zen txapelketa larunbatean. I.T.

Danena-Olaederrako kadeteek Euskadiko Liga irabazi dute.

Nafarroako Gobernuak Aralarko guardetxea itxeko erabakia hartu zuen, eraikinaren egoera txarra zela eta; pasa den apirilaren 30an itxi zituen atea behin betiko eta duela bi aste bota zuten.

Agur Aralarko guardetxeari

NOELIA LATABURU

Gazte garenok zahar ezagutu dugu Aralarko guardetxea. Ez zegoen egoera onean eraikina, egitura zaharkitua zegoen. Nafarroako Gobernuak itxi eta botatzea ebatzi zuen, argudio bera erabilia, zaharra zela. Hala, pasa den apirilaren 30ean ireki zituen azkeneko bere atea, eta guardetxerik gabe dago Aralar ordutik. Duela bi aste, gainera, makinak sartu eta bota egin zuten eraikina. Orain, hutsune bat baino ez dago.

Baina Tolosaldeko Aralarzaleentzat —eta ez dira gutxi— etxe bat baino askoz gehiago zen guardetxea, oroitzapenez, bizipenez, biziaz beteriko lekua zen.

Izan ere, zer hobeago neguko egun hotz batean Aralarko paraje ederretan barrera ibilal ditxoa egin eta guardetxean amaitzea baino? Askok izango dute gogoan Nicolasa Amorenaren babarrun, salda edota txorizo platerak. Edozein berpizteko modukoak... Faltan botako dituzte, dudarik gabe.

Historia pixkat

Aralarko guardetxea Zufiur sendiari lotuta egon zen 1940ko urteetatik. Jose Zufiur Aralarko guardia eta haren emazte Nicolasa izan ziren urte luzez guardetxearen bihotz eta arima. Joseren aita, Migel, guardia ibili zen Aralarren, eta haren urratsrei segika lortu zuten

TOLOSALDEA, ARALARRI BEREZIKI LOTUTA BETI

Aralar mendilerroak esanahi berezia du Tolosaldeko mendizale askorentzat, baita artzaintzat ere. Aralarko Adiskideak mendi elkarretea horren adibide da; 1928. urtean sortu zen, aterpea sortu eta urtebetera. 1949an amaitu zuten, kapera, ermita eta jangelak eraiki ondoren. Orain elkarteak lau urtez behin XIV Orduak antolatzen ditu.

postua Josek berak. Bi urte zituela eraman zuten aurreneko Aralarrrera, eta Aralarri lotuta jarraitu zuen bizitza osoa. Jose Zufiur 1987ko uztailan hil zen, baina Nicolasa guardetxean bizitzaren jarraitu zuen bere alabarekin batera. Eta bertan izan zen pasa den apirilaren 30era arte. Itxierarekin batera, Aralarko historiaren pasarte bat ere itxi dute.

Aralar izaten zuten jomuga eskizatzailak 60ko urteetan. Uda nahiz negua izan, han biltzen ziren, guardetxean. Ez zegoen elkartzeko beste lekurik Aralarren, eta azarotik maiatzera, elurra izaten zenez, guardetxea aterpetxe bihurtzen zuten. Igandeetan Gipuzkoatik eta Nafarroatik joandako hamabost edo hoge autobus elkartzaren ziren guardetxearen kanpoaldean. Eta azkenean, denentzat zegoen lekua Aralarko guardetxean.



Irudi hau historiari pasa da, duela bi aste bota eta obra-hondakinak baino ez dira geratzen orain. A. CANELLADA/ARGAZKI PRESS

«Hutsune handia nabarituko da Aralarren, ez da egongo lekurik ezer beroa jateko»

ANTXON BANDRES › Euskal Mendi Federazioko lehendakari ohia

Tolosa › Aralarri eta mendizaleak osatzen duen lotuta egon da beti Bandres; «penaz» hartu du albistea tolosarrak.

N. LATABURU

Aralarko guardetxearen historia zati bat Antxon Bandresen eta bere kideek osatzen dute. Alpino Uzturre elkartearekin Aralarren hamaika irteera egina da tolosarra eta oso oroitzapen onak gordetzen ditu garai haietaz. Esker oneko hitzak baino ez ditu Jose Zufiur-

rrentzat eta bere familiarentzat. Guardetxearen itxiera, beraz, «pena handia» dela dio mendizaleak.

Zer lotura zenuen Aralarko guardetxearekin?

Aralarrekin aspaldidanik izan dut harremana. Pentsa, 1962 urte inguruan hasi nintzen Alpino Uzturre mendi elkartearekin eta gure irteera ofizialak Aralarren izaten ziren. Oso oroitzapen bereziak ditut urte haietaz.

Nola izaten ziren irteera horiek?

Amezketara autobusez heltzen ginen Tolosatik edo Alegiatik, hareaino trenaz joanda. Handik abia-

tzen ginen Aralarren eta guardetxearen egiten genuen lo, gure bigarren etxea zen. Bestela Lekunberriraino autobusez joaten ginen eta berdina, handik Aralarren abiatzen ginen. Leku bakarra zen jaten eta lo egiteko aukera ematen zuena. San Migel ere hor zegoen, baina albo batera geratzen zen.

Eta behin han zeundetela...

Neguan, elurra izaten zenean, iraupen eskian aritzen ginen askotan. Ondoren guardetxearen aldamenen gortina urdineko borda bat zegoen; *pabellon azul* deitzen genion. Han bazkaltzen genuen eta Nikolasak beti janari goxo-go-

xoa jartzen zigun. Bertan ezkoztatzen genituen eskiak.

Zer suposatu du zuretzat guardetxearen itxierak?

Hutsune handia nabarituko da Aralarren, orain beheko herrietan eta badago non jan eta non lo egin baina han goran ez da geratuko lekurik hamaiketako on bat egiteko. Pena handia da.

Hainbeste denbora bertan pasa ondoren istorio ugari izango dituztu...

Iraupen eskiko probak ditut gogoa, oso polita izaten zen. Lehenago elur gehiago izaten zen Aralarren eta zenbait asteburutan 30 auto-

bus biltzen ginen han, Bizkaitik eta guzti heltzen ziren mendizaleak Aralarren. 60ko hamarkadaz ari naiz hizketan, ia turismorik ez zeuden. Festa izugarriak montatzen genituen bertan eta bertakoeke ere gustura hartzen gintuzten.

Familia handi bat zineten...

Bai, bai. Pentsa, astebururo hara joaten ginen. Nola ahaztu etxekoek mendizaleekin zuten tratua atsegina, oso gertukoak genituen danok. Guretzat bigarren etxea eta familia ziren, oso gertukoak. Jose Zubiaurrearekin ere oso tratua berezia genuen, Aralarreko belardi eta basoak urratsez urrats ezagutzen zituen.

@ Europako hauteskundeak.

Pasa den ekainaren 7an izandako Europako parlamenturako hauteskundeetan emaitzak ikusgai daude Hitzaren webgunean. Sartu eta ikusi herriz herri:

www.tolosaldekohitza.info

Lanean sexu arrazoiengatik eman daitezkeen diskriminazio kasuei irtenbidea emateko gida

Genero berdintasuna

'Genero berdintasunaren alorreko lan eskubideen gida' aurkeztu dute; udaletxean eskura daiteke.

INIGO TERRADILLOS

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak Genero berdintasunaren alorreko lan eskubideei buruz izan daitezkeen kezka eta zalantza argitzea helburu duen *Genero berdintasunaren alorreko lan eskubideen gida* kaleratu du. Atzo egin zuten lan honen aurkezpena Tolosako udaletxean, eta bertan izan ziren Maite Erro Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailerak, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Onintza Lasa Tolosako Udaleko Berdintasun zinegotzia.

Argitalpen honetan lan munduan eman daitezkeen emakumeen eta gizonen berdintasunarekin loturiko egoeren inguruko galderak eta erantzunak agertzen dira. Maite Erro informazio hau zabaltzearen garrantzia azpimarratu zuen aurkezpenean, izan ere, «gure eskubideen berri ez badugu, ezin dugu ezer egin egoera horien aurrean, ez dakigulako nola jokat-

tu». Eusko Jaurilaritzaren baitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa erakundeak egin du lan hau. «2006an sortu zuten Eusko Jaurilaritzak Emakunderi atxekituriko erakunde; independentia da, bere eginbeharrak objektiboki eta inpartzialtasunez betetzen ditu, alegia, inongo lotura jerarkikorik gabe», azaldu zuen Errok. «Herritarrak sexu-arrazoiengatik diskriminazio egoeretatik babestea eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen tratu berdintasunaren printzipioa betetzen dela zain dadin sustatzea» da erakundearen helburua.

Hala, helburu horiek betetzeko, aholkularitza eta laguntza eskaintzen dizkie herritarrei, sexu-arrazoiengatik sektore pribatuan gerta daitezkeen diskriminazio kasuak ikertzen dituzte, gomendioak ematen dituzte kasu horien aurrean nola jokatu jakiteko, kasuen jarraipena egiten dute, diskriminazioaren aurkako araudiaren eta legediaren betetze-maila aztertzen eta balioztatzen dute eta informesak eta ebazpenak egiten dituzte, besteak beste. *Genero berdintasuna hitzarmen kolektiboetan azterlanaren emaitza gisa kaleratu dute orain Genero berdintasunaren alorreko lan eskubideen gida.*



Sexu arrazoiengatik diskriminazioen inguruko zalantza argitzen dituzten gidak.

Informazioa modu errazean

243 galdera-erantzuneko zerrenda baten bidez osatua dago lana, «informazioa modu eskuragarrian, erraz ulertzeko moduan aurkeztuz». Errok azaltzen duen bezala, «kontsulta tresna bat da, langileentzat euren eskubideak lan munduan ezagutzeko, baina horretaz gain, inguruan gertatu daitezkeen egoerak identifikatu eta horien aurrean zer egin jakiteko erabilgarria da, gaur egungo erregularizazio eta legeak dioena zehazten baita». Horrela, beste agente sozial eta ekonomikoak ere inplikatu nahi dituzte: «Kontratu-baldintzak

eta lan-baldintzak ezartzeko zuzeneko ardura dutenei —enplegua ematen dutenei eta ordezkari sindikalei— zuzendua dago, lan-harmanetan emakumeen eta gizonen berdintasunari eta sexu arrazoiengatik diskriminaziorik ezari lotutako gaien berri izan dezaten eta araututako eskubideen hedapena azpimarratzeko».

Hiru zatitan dago banatuta lana: lehenengoa genero berdintasunaren alorreko funtsezko eskubideei buruzkoa da, bigarrena diskriminazioaren aurkako babesari buruzkoa da, eta hirugarrenak gaia-iruruko glosarioa biltzen du.

» DATUAK

- **Lana.** 'Genero berdintasunaren alorreko lan eskubideen gida'.
- **Egilea.** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa erakunde (945 01 65 51).
- **Helburua.** Lan munduan eman daitezkeen sexu arrazoiengatik diskriminazioen inguruko kezka eta zalantza argitzea.
- **Nola eskuratu.** Tolosako Udaleko berdintasun sailean.

Guztionez parte-hartzea

Jokin Bildarratzek lan honen aurkezpena Tolosan egitea eskertzearekin batera, Tolosan egiten den lana aipatu zuen: «oraindik asko dago egiteko berdintasunerako bidean, eta jarraitu beharra dago lanean; Tolosak esfortzu garbi eta leiala egin du beti berdintasunaren alde, eta horrela jarraitu behar dugu, herritarrak sentsibilizatzearen bidetik».

Onintza Lasak, bere aldetik, berdintasun sailean egiten ari den lana azpimarratu zuen orain urtebete onartu zen ordenantza gogoratuz. Hala, gida oso baliagarria izango dela adierazi zuen, beti ere, «guztiok parte hartzen badugu». Hala-ber, Udalak beti prest egongo dela gai honen inguruan edozein motarako zalantza argitzeko esan zuen.

Arrakastatsua Laskorain eguna

HEZKUNTZA Pasa den igandean, Laskorain ikastolaren eguna ospatu zuten, «sekulako giroarekin». Urtetik urtera jende gehiago biltzen dela nabarmendu dute ikastolatik, eta antolatutako ekintzak «primeran» ateratu zirela. Hala, esaterako, bazkarian 1.100 lagun inguru bildu ziren. Askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izan zuten egun osoan zehar, eta bai ikasle, guraso zein irakasleek ederki igaro zuten. HITZA



Laburrak

Tolosako Kantarikoentzat bazkia, hilaren 27an

GIZARTEA Tolosako Kantari ekimeko antolatzaileek bazkia antolatu dute hilaren 27rako, Abastosen. Txartelak Xirimiri, Laier, Elurra eta Amarozko Ekaitzan eskura daitezke.

Argazki erakusketa ikusgai Aitzol Udal Euskaltegian

KULTURA Aitzol Udal Euskaltegian ikusgai dago, hilaren 19ra arte, bertako ikasleek ateratako argazkiekin osatu duten erakusketa.

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

SERAPIO BEITIA LIZARAZU

Jauna
Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

Goian bego
Bere emaztea: Amparo Villar; seme-alabak: A. Sun, Mila eta Jesus; ezkon seme-alabak: Iñaki Dorronsoro, Joxo Larrañaga eta Julia Mendaza; bilobak: Amaia, Eneko eta Jon Ander; anai-arrebak: Gabino (?), Rosario, M^l Isabel eta Milagros. Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otowitz bat eskatzen dizuzete eta arren etor zaitzetzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN.

Legazpiko JASOKUNDEKO parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aidez zaurretik, mila esker.

Helbidea: San Inazio, 20
Oharra: gorpu beila Legazpiko Santa Isabel Tanatorioan.
Oñatiko hilerrian lurperatuko da familia artean.



LEGAZPI
2009ko
ekainaren 17a

Duela egun gutxi amaitu dute denboraldia Tolosako kirol taldeek. Tartean, lurraldekako preferentean lehiatzen diren Tolosa CFko futbolariak, eta Bide Bide Ibiza saskibaloitalkoak; bietako ordezkariek gustura daude lortutako emaitzekin, denboraldi hasierako helburu nagusiak bete baitituzte; hurrengo denboraldira begira hasiak dira dagoeneko.

«Garrantzitsuena da amaierara arte borrokatu dugula; gogor saiatu gara»

JOSE MANUEL LULUAGA » Tolosa CFko entrenatzaile ohia

Futbola » Denboraldi ona egin du Tolosa CFk; hasierako helburua, berritua mailaz igotzea zuten, baina justugatik, ez dute lortu.

ESTI ZEIZA

Ikasturtea amaitzearekin batera, Tolosa CF taldekoek ere bukatutzat eman dute denboraldia. Lurraldekako preferente mailan lehiatu dira aurtur urdinak, eta denboraldiaren hasieran, mailaz igotzea bazuten ere helburu, azkenean ez dute lortu. Datorren denboraldira begira hasi dira orain tolosarrak eta ordurako dagoeneko zenbait aldaketa aurreikusita dituzte. Nabarmenena, entrenatzailearena izango da, hemendik aurrera, jubenilen gidari izan denak hartuko baitu Jose Manuel Luluagaren tokia.

Bukatu berri den denboraldiaren zein balorazio egiten duzue?

Kanpotik ikusita, agian, itxuraz eskakasa izango da. Lehendabizikoa



ESTI ZEIZA

helburua mailaz igotzea baitzen. Baina, denboraldia nola joan den ikusita, eta gertatu diren gauzak gertatuta, txarra ez dela izan esango nuke.

Amaieran baja asko izan dituzue.

Jende aldetik nahiko justu amaitu dugu denboraldia, eta hau emaitza nabaritu da. Lesio asko izan ditugu, eta gainera, jokalaririk garrantzitsuenak. Taldeko pisua era-

man behar zutenek hartu dute min, eta horrek eragin handia izan du.

Mailaz igotzeko aukera ia amaierara arte mantendu duzue.

Pena izan da, azken bost partidetaraino igotzeko aukerakin sartu ginela. Hernanin galdu ostean, ia aukera guztiak joan zitzaizkigun. Hala, Aretxabaletara joan ginenean, ez genuen inolako aukerarik.

Gainera, talde honek izugarriko amaiera eman zion denboraldiari, hamaika partida jarraian irabaziz.

Taldea bera nola ikusi duzu?

Oso ondo, zuten guztia eman dute. Aipatzekoa da, talde oso gaztearekin jokatu dugula, eta esperientzia aldetik ongi etorri zaie.

Ez igotzearen arrazoi nagusiak, bat, baja kopuruarena izan al da?

Nik beti esaten dut, igotzea oso zaila dela, batek bakarrik lortzen baitu. Normala da klubak helburu batzuk jartzea, baina errealista izan beharra dago. Igotzea oso zaila da, eta guretzat aukera onenetako bat zen, azken bost partidetan goian egotea, eta pena handiena izan da, horez garelako.

Entrenatzaile bezala, gustura geratu al zara egindako lanarekin?

Bai, nik azken batean, dakidan guztia erakutsi diet jokalariei, eta ahal dudana guztia eman dut. Alde horretatik lasai geratzen naiz, nahiz eta denboraldi zaila izan den. Entrenatzaileok gauza onak nahiz txarrak dauzkagu, eta nire

helburuak bete dira, egin dizkie-dan ekarpenek zerbaitetarako baliotza izan badie.

Datorren denboraldira begira jarriak al zarete?

Hurrengo denboraldian ni ez naiz izango taldearen entrenatzailea. Denboraldia hasterako esan nuen, urtebete bakarrik egingo nuela, eta horrela izango da. Nire helburua zen ahalik eta denboraldi onena egitea, eta orain beste batzuk ditut.

Amaiera honekin, gustura edo penatuta?

Pena beti ematen du, urte osoa jokalariekin igaro baitut. Baina hauek jarraituko dute, eta guk ere bai. Garrantzitsuena da, amaierara arte borrokatu dugula, eta azken bost partidetan igogerrakoz ez gara lehiatu, baina gogor saiatu gara.

Dena den, aurrera begira ere, taldea jarraituko duzu?

Aurrerantzean ere, Tolosari jarraituko diot, zalantzarik gabe. Orain arte egin dut, eta gero ere egingo dut.

Hurrengo denboraldira begira, zein aldaketa egin beharko lirateke?

Iaz finkatu genuen filosofiarekin jarraituko dute ziurrekin, hau da, herriko jokalariekin jarraitzearekin. Hortik jarraituko dute, eta hau oso garrantzitsua da. Une honetan taldea ez dago agian, mailaz igotzeko moduan, baina bi edo hiru urtetan prest egongo da.

«Fisikoki oso indartsu hasia erabaki genuen, baina hori ordaindu egin behar izan dugu»

KOLDO ARSUAGA » TAKEko lehendakaria

Saskibaloia » Indartsu, pardi gehin irabaziz hasi ziren Bide Bide Ibizakoak, baina gauzak okertzen joan zaizkie.

E. ZEIZA

Nazional mailan lehiatu da azken denboraldian Bide Bide Ibiza saskibaloitalkoak. Indartsu eta gogor hasi zuten denboraldia, baina partidak aurrera joan ahala gauzak aldatuz joan ziren. Hala ere, gustura daude TAKEkoak, maila mantentzea lortu baitute, eta hurrengo urtean ere, ahal duten guztia emateko prest baitaude.

Zein da bukatu berri den denboraldiaren inguruan egiten duzuen balorazioa?

Ona, izan ere, gure hasierako helburua maila mantentzea zen, eta lortu dugu. Iazko denboraldiarekin alderatuz, kontrakoa izan da. Oraingoan, oso indartsu hasi ginen eta lehendabiziko partidetan alde polita ateratu genuen. Igoera fasean sartzeko aukerak zituzten artean jarri ginen lehendabiziko jardunaldietan, baina gero, jokalariei luze egin zaie, eta nahiko gogorra egin zaigu bukaera.

Denboraldia horrela joan zitekeela espero al zenuen?

Bai, horrela izango zela pentsatzen genuen. Bagenekien, taldean garrantzitsuen diren horiek, hasieran dena emateko prest egongo zirela, baina bukaeran ezingo zutela horrekin. Baja dezente izan ditugu. Izan ere, helduenei denboraldia luze egiten zaie. Dena den, honek alde onak ere baditu, taldeko gazteenek asko jokatu baitute azken jardunaldietan. Hurrengo urtean,



INIGO TERRADILLOS

junior mailako batzuk igoko dira, eta aurtengoarekin, lan pixka bat aurreratu dute, gutxiengo esperientzia bai baitute.

Zergatik eman da jaitziera hori denboraldiaren amaieran?

Fisikoki oso indartsu hasia erabaki genuen, baina hori ordaindu egin behar izan dugu. Hilabete askotan ezin baita erritmo hori man-

tendu. Bigarren fasean, entrenatze arazo gehiago izan genituen. Hala, galtzen hasi ginen, eta dinamika horretatik ezin izan ginen ateratu. Hamarretatik zazpi galdu egin genituen nahiz eta alde txikiarekin izan. Partida gehienetan aukerarik izan ginen, ez ginen besteak baino gutxiago izan, baina fisikoki nekatuta amaitu genuen.

Taldea oro har, nola ikusi duzu?

Ongi, gustura. Hurrengo denboraldirako berriz, gauzak aldatu egingo dira. Orain arte izan dugun entrenatzaileak taldea uzten du, eta Jon Gonzalezen esku geratuko da taldea. Gaztea da, eta berarentzat erronka berri bat izango da.

Datorren denboraldian bezala, zenbait aldaketa izango dira.

Taldea gaztea izango da. Kike eta Kaiet lehendabiziko taldean ez dira izango, erreserban egongo dira. Beterano gisa Goar eta Haritz geratuko dira. Gainerantzean taldegaztea izango da. Lau juniorigoko dira. Zortzi jokalaririk aurreko berdinak izango dira, eta lau, berriak. Erronka berri bat izango da. Alde batetik, talde freskoa izango baita, baina aldi berean, esperientzia gutxiagoa. Ea apustua ongi ateratzen den. Ongi ateratzen bada, urte askotarako taldea izango da.

Gainerantzean, jokalaririk gazteak baal daude?

Bai, harrobi handia dago. Bi edo hiru urtetan, talde kopurua bikoiztera iritsi gara. Aurtur, hamabi talde izan ditugu. Jende ugari dago. Urtean urtera jende gehiago ematen du izena. Bestalde, hurrengo ikasturterako proiektu berri bat dugu, non ikastetxeekin hitzarmen bat sinatuko dugun, hauekin batera lan egiteko, eta saskibaloia bultzatzeko.

KEY-LAN
Sarrailgintza

Nalanda etorb. 11 behean - TOLOSA
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

«Kultur Asteko berritasunek erantzun ona jaso dute herritarren aldetik»

Albiztur » Hilabete batean zehar banatu zituzten ekitaldiak eta «seguruenik» formula hori mantenduko dute datorrenerako ere.

NEREA URBIZU

Kultur Astea joan den asteburuan bukatu zen Albizturren. Hilabete batean zehar ekitaldi ugari prestatu zituen Udalak. Arkaitz elkartearekin eta eskolarekin elkarlanean. Formula hau mantenduko dute seguruenik, hilabete batean ekitaldiak banatu, eta ez dena astebetean.

Aurten sommelierraren ekitaldia eta Zuhaitz Eguna izan dira berritasunak eta biak ere «oso politik eta erakargarriak» izan dira. Argi dute Udalekoek hau mantenduko dutela, «beste belaze batzuetan landatzeko lekua badago». Egun hau antolatu ondoren udalaxe bera ere dotoreago dago orain, lo-rez apaindu baitzuten txikiak. Bertan gurasoek hamaiketakoak prestatu zuten eta irakasleen laguntza ere izan zuten. Elkarlanean aritu ziren honetan ere.

Hurrengo ekitaldia eskolakoan antzerkia izan zen. «Gero eta arrakasta handiagoa eta herritarren erantzun hobea ari dira jasotzen antzerkikoak». Eskolan egin zuten *Txiukue* antzezlan eta gai soziala eta puri-purien egon daitekeen gaia jorratzen zuen, gurasoen eta haurren arteko komunikazioaz, besteak beste. «Urte batzuk dararamatzagu antzerkia ikusten eskolako eskutik eta egia esan, gero eta jende gehiago joaten da».

Paella jatek antzerkia

Paella jatea bigarren urtez egin zuten aurten eta 120 lagun bildu zituen bazkari erraldoiak. «Jaz bezala oso goxoa zegoen eta jendea gustura geratu zen. Jende gutxiagok eman zuen izena iaz baino, baina



Presen Urkizuk orrialde bana eman zien parte hartu zutenei, ardoa dastatzeko orduan kontuan hartzekoak. ESTI EZBIZA



Zeberio eta Gazteluk «oso hurbileko giroa» sortu zuten. ESTI EZBIZA

hala ere oso pozik gaude». Ondotik antzerkira joan ziren gehienak eta «aretoa bete zen», antzerkira joarretako ohiturarik ez duen jendea ere gerturatu. *Gezurrezko printzea* ikusi zuten; bat baino gehiago identifikatuta sentituko zen...

Urteroko «erronka», hitzaldia

Herriz guztietan gertatzen da; edozein dela hitzaldia, jendea biltzea ez da erraza izaten, are gutxiago jannaririk ez badago inguruan. Albizturren bi erremontista gonbidatu

zituzten: Gaztelu eta Zeberio II.a. Hauek erremonteari buruz hitz egiten jardun zuten 20 lagunuen artean eta «jendearen aldetik, galdera asko egin zituzten eta interesgarria izan zen. Oso gertuko giroa sortu zen denen artean eta jendeak gustura egoteko aukera izan zuten».

Datorren urteari begira ere, hitzaldiari tarrea gordeko diote eta seguruenik kirolari lotutakoa izango da: «Honela jendea joango dela ziurragoa da, kirola gai inte-

resgarria baita gehienentzat». Arkaitz elkartearen eta Udalaren arteko harremana eta elkarlana «oso ona izan da» gauzak antolatzeko garaian.

Herriko helduenek Lapurdia egin zuten irteera eta Baiona ezagutu zuten. Bertako txokolate fabrikari ere izan ziren eta bertako txokolatea erosteko ere aproberegarria baita gehienentzat».

Datorren urtean ere hitzaldia egingo dute, eta kirolari lotutakoa izango da

txatu zuten: guztira 35 bat lagun bertaratu ziren. «Urte oso dira Iparraldera irteera antolatzen zenuela».

Baina aurten ardo-dastatzearan ekitaldia izan daguztien artean bereziena, eta herritar askok gainera parte hartu zuten: Presen Urkizu berastegiara izan zen ardoei buruzko hainbat datu ematen. Zazpi ardo diferente eraman zituen dastatzeko eta ardoaren ezaugarriak bereizteko hainbat argibide eman zituen, denei paper bana ematen. Bukatzeko, pintxoak jan zituzten.

Etzi Hitzako hiru maila txikienetako finalerdiak jokatu dituzte

Pilota » Benjamin, alebin eta infantilen mailan Albizturren, Berastegin eta Adunan, hurrenez hurren, izango dira.

ERREDAKZIOA

VI. Hitz Txapelketako hainbat final zehazteko partida oso gutxi falta dira. Etzi bertan, hiru finalerdi jokatu dituzte eskolarteko mailan. Hiruak 19:00etan izango dira, dagokion herrietan. Beraz, Albizturren benjaminak, alebinak Berastegin eta infantilak Adunan.

Benjaminen mailan Salaberria-Zinkunegi eta Gelbentzu-Zubizarreta ariko dira lehenik, eta ondoren, Bergantinos-Zubeldia eta Murua-Zubeldia.

Berastegin Saenz-Bakaikuak eta Peña-Egigurenek jokatu dute lehendabizi eta jarraian, Iturbe-Mendiak eta Zubeldia-Urdanpilletak.

Infantilak Adunan ariko dira; Mujika-Iruretagoiena eta Olanotolosaren ondoren Larrea-Iribarraren eta Ontxalo-Goñi bikoteen artekoa izango da.

Helduen mailan erabakita

Atzo iluntzean kadeteen arteko finalean ariko den bigarren pilotaria zehaztuko zen finalerdi Bidanarian jokatu ondoren. Jaka eta Azketa aritu ziren. Baina finalean ziur ariko den beste kadetea Ariztimuño da. Honek, Azketaren aurka jokatu zuen joan den astean eta 18-16 bukatu zen partida.

22 urte aspikoan arteko finala hau izango da: Mitxelena-Telletxea eta Azpiri-Madariaga. Urbietea-Zinkunegi eta Ezkurdia-Lukin jubenilen mailan ariko dira. Bi norgehiagokak «gogorrak» izango dira. Finalean oraingo iaz ere iritsi ziren bi pilotari daude: Ezkurdia eta Urbietea, hain zuzen ere.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Argazki kamera digitala galdu zen ekainaren 13an, larunbata, Ibarren. Aurkitu duenak dei dezala mesedez 635 733 646 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Ezinduentzako garraio baliabideak.** Ezinduentzako scooterra salgai. Urtebeteko garrantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurgildun aulkia elektrikoa salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebeteko garrantia. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 605 77 16 07.

X. Zaldi Lasterketa igandean izango da

ERREDAKZIOA

Dagoeneko hamar urtez antolatuko dute aurten ere Abaltzisketan Zaldi Lasterketa. Festen egitarauan, beti bezala, igandez egingo dute, hilaren 21ean, beraz. Bertan parte hartzeko izena emateko aukera dago, baina etzi arte eta telefono zenbaki batera deituta (605 75 67 43).

Beti bezala Amezketara eta Abaltzisketara artean egingo da, biak lotzen dituen errepidean. 2,5 kilometro inguruko ibilbidea da maldan gora. Laburra da, baina oso




Iaz 16 zaldunek hartu zuten parte proban. A. OTEZABAL

» X. ZALDI LASTERKETA

- **Eguna.** Ekainak 21.
- **Ordua.** 18:00etan.
- **Distantzia.** Bi kilometro eta erdi.
- **Ibilbidea.** Amezketatik hasita Abaltzisketara bitarte, aldapan.
- **Parte hartzeko.** Ostirala baino lehen 605 75 67 43 telefono zenbakira deituta.

ikusgarria; inguruan, garrantzi handiena hartu duen lasterketa bihurtuz joan da. 18:00etan hasiko da Amezketan bertan.



Orain bi urte, Aimar Irigoien 185 kiloko harri altxatzen bi eskuekin. Eskuinean, Iñaki Gorostidi ondoan 185 kilo harri duela. I. AZPILIKUETA/I. GARCIA

III. Gorostidi Harria Txapelketa jaialdi bihurtu da aurtengorako

Aduna » Aimar Irigoien eta Joseba Ostolaza izango dira igandean; Joxe Mari Mendizabal aizkolariak ere parte hartuko du.

IMANOL GARCIA

Muxkil elkarteak antolatuta, igandean honetan, hilak 21, Adunan III. Gorostidi Harria Txapelketa izango da jokoan, 18:00etan, frontoian. Halere, aurtengoa ez dirudi txapelketarik izango denik, Adunan izango diren bi harri-jasotzaileek, Aimar Irigoienek eta Joseba Ostolazak, ez baitiote aurtengorako ezarritakoari aurre egingo.

27 urte betetzen dira aurtien Iñaki Gorostidi adunarrak esku bakarrekin 185 kiloko harri zaharra igo zuela. Jaialdi berdinean 208 kiloko harri zaharra igo zuen bi eskuekin. Gorostidi Harria Txapelketa orain bi urte antolatu zuten lehenengo aldiz eta bertan 185 kiloko harria igo behar zuten harri-jasotzaileek, baina bi eskuekin. Aimar Irigoienek irabazi zuen lehia. Iaz berriz antolatu zen txapelketa, baina kasu horretan 208 kiloko harria jaso behar izan zuten. Irigoien bera eta Joseba Ostolaza aritu ziren lan horretan eta berriro errezidarrak irabazi zuen.

Aurtengorako txapelketak zailtasun maila handiagoa du: esku

karrarekin igo behar da 185 kiloko harri zaharra, Gorostidik orain 27 urte egin zuen bezala. Baldintzetako bat da harriarekin aurretik ezin dela prestaketarik egin. Beste bi urteetan bezala, harri hori Aduna-ko Uztartza tabernan dago ikusgai. Irigoienek zein Ostolazak azaldu dutenez, ez dute saiakerarik egingo harriarekin, baina erakustaldia egingo dute.

«Aurreko egunean marka saikera dut Tolosan, beste harri mota batekin, eta ezin dut prestatu behar bezala», azaldu du Irigoienek. «Gainera ez dago aukerarik txapelketako harriarekin prestatzeko eta horrek asko zailtzen du. Horrelako txapelketa batera segurtasun

batekin joan beharra dago». Ostolozak azaldu duenez, «ibili naiz ahaletin egiten eta ez nuen ikusten oso seguru altxatuko nuenik. Gainera, aurretik ezin da harriarekin prestaketarik egin eta baldintza horietan oso zaila da horrelako proba batera joatea».

Marka oso ona

Bere garaian Iñaki Gorostidik egindako marka oso ona izan zela diote bi kirolariak. Irigoienek dioenez, «oso marka ona da, sekulako meritua du». Ostolozak ere hala dio: «Marka ona da dudarik gabe».

Gorostidi berak azaltzen duenez, «harria plazara eramango dugu, ea azkenean animatzen di-

ren harri-jasotzaileak». Adunarrak badaki berak egindako marka errepikatzea oso zaila dela. «Egun, puntako harri-jasotzaileen artean Inaxio Perurenak eta Aimar Irigoienek izan dezakete aukera altxatzeko», dio. «Harri zaharra izateak zaildu egiten die, ez baitaude ohituta molde horretako harriekin».

Ostolozak badaki Gorostidik «zirikatu» egingo diela harria altxatzeko, baina dirudienez erakustaldia eskainiko dute berak eta Irigoienek. «Hitz egin behar dugu zer egingo dugun», gaineratzen du Ostolozak.

Mendizabalentzat erronka

Harri-jasotzeaz gain, jaialdiak ere beste gauza batzuk izango ditu. Joxe Mari Mendizabal adunarrak lan handia egingo du aizkorarekin. 62 urterekin 80 ontzako (1,85 metroko zirkunferentzia) hiru enbor zutik moztuko ditu. «Dozena bat kanardieko zutik ebakitzea bezalako lana dela esan daiteke», azaldu du Mendizabalek.

Zutik ebakitzea lan gogorragoa dela dio aizkolariak: «Gerriarentzako lana handia izaten da». Zernolako eguraldia egingo duen eragin handia izango du lana burutzeko beharko duen denboran. «Bero handia egiten badu hiru-lau minutu gehiago beharko ditut», dio. «Moztu daitezke 33 edo 35 minututan. Hor ibiltzen banaiz nire ustez ez da izango lan txarra».

Enborrak zutik egoteak ere zailtzen du lana. «Zutik mozte nahiko gauza serioa da. Korteza ondo eman behar diozu, zuten, gauza denak ondo atera behar dute». Aurretik egin gabeko lana da Mendizabalentzat eta adina kontuan hartuta, erronka ederra izango du adunarrak. Aurrerabegira ere, laubost hilabetera beste zerbait egiteko asmotan dabil.

Bestalde, igandeko jaialdian, aurreko bi urteetan bezala, txinga lehia izango da. Nahi duenak parte hartu ahaliko du. Esku bakoitzean 75 kiloko txingak eraman beharko ditu eta egunean bertan eman behar du izena.

Euskadiko Liga Danena-Olaederrarentzat kadeteetan

Villabona-Zizurkil »

Promesa mailan hirugarren postua lortu zuten; guztira taldeko zazpi pultsulari aritu ziren Olaederran.

ERREDAKZIOA

Euskadiko Ligaren laugarren eta azken jardunaldia jokatu zen asteburuan Villabonako Olaederrako kiroldegian. Kadete eta promesa mailetan jokatu zen eta Danena-Olaederrak garaipena eskuratu zuen jardunaldi horretan eta liga bera ere irabazi zuen. Promesen




Asteburuan Olaederran izan zen txapelketaren parte-hartzaileetako bat. I. T.

mailan hirugarren postua eskuratu zuten.

Kadete mailan Iñaki Zubelzu (2.), Adrian Sasiain (3.), Alain Molela (5.) eta Asier Gallego (7.) aritu ziren eta Gipuzkoa ordezkatzeko lortu zuten taldeka lehen postua. Promesetan, 17 eta 20 urte bitarteko mailan, kadete mailako pultsulariak aritu ziren. Koldo Saratxo (9.), Joseba Arrate (11.) eta Kellyam Quintana (13.) izan ziren parte hartu zuten pultsulariak. Batis Kortajarena prestatzailea «gustura» azaldu da emaitzekin. «Ikusten da aurrerabegira etorkizuna badaguela».

Danena-Olaederra talde parte hartuko duen hurrengo lehiaketan A Coruña (Galizia) jokatuko den 17 urte azpiko Galeusca lehiaketa izango da, Euskadi, Galizia eta Kataluniako selekzioen arteko lehia. Bertan izango dira Adrian Sasiain, Iñaki Zubelzu, Alain Molela eta Iker Hernandez.

Ekainaren 20an ere taldekoak ariko dira Euskadiko Txapelketan, absolutu mailan, Iruñen. Bertan izango dira Iker Hernandez eta Jon Sasiain (62 kiloko mailan), Igor Sasiain (69 kilo), Mikel Quintana (85 kilo) eta Teddy Martinez (94 kilo).



Iaz ere Aresoko taldea Euskal Herriko Sokatira Txapelketan izan zen. Irudian Gaztelun jokatu zen jardunaldian. A. IMAZ

Euskal Herriko Sokatira Txapelketan Areso laugarren postuan

Areso » Lur gainean 640 kiloko txapelketaren bigarren jardunaldia jokatu zuten 6 taldek Erandion iragan larunbatean.

ERREDAKZIOA

Goiherri A taldeak irabazi zuen lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketako bosgarren saioa iragan larunbatean Martiartu-Goiherri (Erandio, Bizkaia). Hain justu ere, 640 kiloko bigarren jardunaldia jokatu zuten lehian diharduten sei taldek, eta etxeko taldeak irabazi zuen, orain arteko bost txandetako hamar alditan bezala. Horrenbestez, Goiherri A-k urrats handia egin du iaz jantzitako pisu horretako txapelari eusteko.

Areso laugarren

Areso, Gaztedi (Laukiz, Bizkaia), Getxo (Bizkaia), Goiherri A eta B (Erandio, Bizkaia) eta Mutriku (Gipuzkoa) aritu ziren lehian saio-

ak irauan zituen bi ordu eta erdian. Gaztedi zen bigarren sailkatua, eta soilik Goiherri A-ren aurka galdu zuen. Mutriku, berriz, galdu egin zituen Goiherri A eta Gaztediren aurkako bi tiraldiak; Gaztediren aurka tiraldi gogor eta estuak burutu zituelari. Gipuzkoarrek Areso, Goiherri B eta Getxo hartu zituzten mende.

Areso sailkatu zen laugarren postuan, Goiherri B eta Getxori bi tiraldiak irabazita. Goiherri B-k bere aldetik, Getxo menderatu zuen, eta Getxok galdu egin zituen saioko tiraldi guztiak.

Oro har, lehen jardunaldian baino lur gogorxeagoa izan zuten tiralariek larunbatean.

640 kiloko azken jardunaldi erabakigarria heldu den igandean, hilaren 21ean, jokatu da Maeztun (Araba).

Areso laugarren

Euskal Herriko Txapelketak aurrera jarraituko du 600 kiloko tiraldiekin. Aresoko taldea bertan egongo da. Lehen jardunaldia hila-

ren 27an izango da Billelan (Bizkaia). Txapelketa erabakiko duen bigarrena berriz Mungian (Bizkaia) jokatu da uztailearen 4ean.

Orain arteko bost talde ziu egongo dira 600 kilokoan. Getxo aldiz zalantza da. Euskal Herrikoarekin amaitzeko, 580 kilotako txapelketa jokatu da ondoren.

» SAILKAPENA

2. jardunaldia.

1. Goiherri A (Bizkaia)
2. Gaztedi (Bizkaia)
3. Mutriku (Gipuzkoa)
4. Areso (Nafarroa)
5. Goiherri B (Bizkaia)
6. Getxo (Bizkaia)

Sailkapen Orokorra

- | | |
|-------------------------|-----------|
| 1. Goiherri A (Bizkaia) | 12 puntu |
| 2. Gaztedi (Bizkaia) | 10 puntu |
| 3. Mutriku (Gipuzkoa) | 7,5 puntu |
| 4. Areso (Nafarroa) | 6,5 puntu |
| 5. Goiherri B (Bizkaia) | 4 puntu |
| 6. Getxo (Bizkaia) | 2 puntu |

Nafarroako Herri Artekoan Leitzak Uharteren aurka jokatu du

Pilota » Ibai Bengoetxeak Amazabal pilotalekuan jokatu du etzi Nafarroako lau t'erdikoaren kanporaketa.

ASIER IMAZ

Azken egunetan Leitzako pilotariak albiste izan dira. Alde batetik Aurrerakoek ohiko partidak jokatu zituzten asteburuan. Bestalde Ibai Bengoetxeak etxean jokatu du Nafarroako lau t'erdiko txapelketaren kanporaketa. Azkenik, Leitzako taldeak Uharteren aurka jokatu du Herri Artekoaren finalerdia.

Uharteren aurka finalerdietan

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan multzo berean jokatu dute Leitzak eta Uhartek. Etxetik kanpoko partidari bi partida irabazi zituen talde bakoitzak, aldeko eta aurkako tanto kopuru berarekin. Berdintasun hau Leitzan hautsi zen, nahiz eta bina egin berriro ere, Amazabalen etxekoek 15 tantoko errentaz irabazi baituzten.

Lehen ligaxka amaitu ondoren, bi taldeek finalerdietarako txartela lortu zuten: Leitzak lehen postuan eta Uhartek laugarren bezala. Ondorioz, elkarren aurka bi partida jokatu beharko dituzte berriro ere: etxean eta kanpoan. Hori bai, irabazlea kasu honetan finalean egongo da.

Joaneko partidak Uhartek jokatu dira larunbat honetan 10:00etatik aurrera. Itzulerakoak berriz Amazabalen, hilaren 26an.

Sagastibeltzaren irakurketa

Leitzako taldeak asteburuan atsedean zenez, Pakito Sagastibeltza Irurtzuna gerturatu zen. Aurrera Pilota Eskolako kideak honela ikusten du finalerdia: «Gustura Uhartek tokatu zaigulako. Beraien aurka jokatu dugunean berdindu-

ta ibili gara, bigarren partida tanto-etara irabazi genuen arren. Orain ere bi eta bi egingen dugu ia ziur, baina alebinetan azkeneko aldin 18ra zen partidari 16na egon ziren eta nik uste ari direla piskanaka hurbiltzen. Itzulerako partida erabakiorra izanen da. Hona tanteo on batekin etortzeko esperantzak ditugu. Hemen gauzak ongi ateratzea espero dugu, hala ere lehen balorazioak eta kalkuloak ez dira oso seguruak izaten; Herri Artekoan ezusteko latzak gertatzen dira eta ez da ahaztu behar lehengo urtean talde honen aurka kalean gelditu ginela finalerdietan. Gauza bat garbi dago, partida guztiak jokatu egin behar direla eta gero geroakoak».

Ibai Bengoetxea etzi etxean

Frontis enpresak Nafarroako lau t'erdiko txapelketa jarri du martxan. Ibai Bengoetxea leitzarra izanik, kanporaketa Leitzan jokatzeari nahi zuten enpresako ardura dunek. Partida hori hilaren 19an, etzi, jokatu da Amazabalen. Jaialdia 19:30ean hasiko da eta leitzarrak bigarren lehia jokatu du Antxiaren aurka.

Nafar Jokoetan kale

Asteburuan hiru final jokatu zituzten Aurrerako pilotariak Nafar Jokoetan. Hirurak galtzea tokatu zen oraingoan. Mikel Sagastibeltza Egües-Xabi Zubiriak; Joxerra Aldaregia-Mikel Hernandorenak eta Joseba Eskudero-Beñat Altzelaik hurrengoan jantzi beharko dute txapela.

Elgetako Txapelketan Jon Jaurarenak 11-22 galdu zuen Mendizabalen aurka.


Ander Alduntzin-Beñat Altzelaik ere galdu egin zuten Igeldoko Txapelketan, kasu honetan 10-16ko emaitzarekin.

Irurtzunen ere ez zuten garaipeirik lortu Ibai Barberena-Iñigo Mitxausek, 8-18 galdu baituzten.



Odola emateko aukera bihar

LEITZA » Odola emateko aukera berri bat egongo da bihar goizean Leitzan. Horretarako Aurrera elkartean Odol Emaleen harrera jarriko dute 09:30etik 12:00etara. Behin bertan datuak eman ostean, herriko plazan egongo den autobusera joan beharko du odol-emaleak. Atzo zerbitzua zabalik eduki zuten 17:00etatik aurrera eta hainbat herritar gerturatu zen odola emateko asmoz. Hauek «Leitzan azken denboran» horretarako aukerarik ez zutela eduki esan zuten. A. IMAZ



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** Jai egitaraurako azal lehiaketa helduentzat eta haurrentzat. Gaia: jaiak. 300 euroko saria. Lanak Kultur Etxean aurkeztu.
- **Tolosa.** Lizardi konpainian esko-petari gisa atera nahi duten neskek deitu telefono hauetara: 600 244693 edo 686 405932.
- **Tolosa.** Musika udalekuak Eduardo Mokoroa udal musika eskolan ekainaren 29tik uztailearen 10era, 9:30etik 13:30era, 4 eta 12 urte artekoentzat; jolasak, dantzaldiak, kontzertu didaktikoak, abesbatza, gimnastika... Izen-ematea, musika eskolan.

Erakusketa

- **Hernialde.** *Sahararak, herri bat erbestean* Ander gillenea argazkilaria erakusketa ikusgai Ostatuan, uztailearen 13ra arte. Tindoufeko errefuxiatu eremuan ateratako argazkiak dira.

Irteerak

- **Ibarra.** Ekainaren 20rako Baionara irteera antolatuta du Bizi nahi elkarteak. Bazkaria Oiarzunen. Izen-ematea, elkartean 28 eurotan (ez bazkideek, 30).
- **Zizurkil.** Santanderrera hilaren 30rako irteera antolatuta Elizpekin. Izen-ematea, 23tik 25era, 16:00etatik 18:00etara, 28 euro.

Ikastaroak

- **Tolosa.** Bular autoexplorazioaz jardunaldia 19:00etatik 21:00etara DY Aren delegazioan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Uxola sariko irabazleak, atzo Kultur Etxean, sariak jaso ondoren. N. LATABURU

Atzo banatu zituzte Tolosako Kultur Etxean XXIII. Uxola sariak; Tolosako eta Ibarra ikasleek jaso dituzte literatur sari hauek, 'Uxola' idazle eta euskaltzalearen jaiotzaren 100 urte betetzen direnean.

Idazle txiki handiak

ERREDAKZIOA

Honekin 23. aldian da Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak Uxola sariak banatzen dituela. Urte berezia da, 100 urte betetzen baitira Estanislao Urruzola Uxola idazle tolosarra jaio zela. Urtero lan sarituak biltzen dituen liburuxkaren azala egiten duen Joxe Mari Gorrotxategik ere omenalditxo egin nahi izan dio eta muntaia baten bidez Joxe Karrera eta Joxe Ramon Garikanorekin batera jarri du, mendizalez jantzita.

Urteurrenak urteurren, Uxola literatur sariaren protagonista nagusiak idazle gazteak dira. Lau maila

izan dira aurten ere, eta maila bakoitzean olerkiaren eta hizlauraren sailak.

Aurten laugarren mailan, olerkiaren saillean, sari bakarra banatu dute, epaimahaiaren ustez —Agustín Amiano, Juan Kruz Igerabide, Bittor Madina, Karlos Linazasoro— «lanek ez baitute maila eman».

Uzturpe, Laskorain, Orixe, Samaniego eta Hirukideko ikasleak saritu dituzte. Atzo egin zuten sari banaketa Tolosako Kultur Etxean. Sail bakoitzeko lan sarituaren egi-leek euren lana irakurri zuten bertaratutako zirenen aurrean, musika ere lagun izan zutelarik. Euskara batzordetik «lagundu duten guz-

tien lana» eskertu zuten eta irabazleak zoriondu zituzten.

Irabazleak

Hauek izan dira aurtengo irabazleak (1., 2., eta 3. sailkatuak hurrenez hurren). Lehen mailan, hizlauran: Maialen Otamendi (Samaniego), Josu Etxeberria (Samaniego) eta Aitor Maiza (Uzturpe). Lehen mailan, olerkian, Xabier Mendizabal (Hirukide), Amaia Baztarrrika (Uzturpe) eta Lierni Bermudez (Uzturpe)

Bigarren mailan, hizlauran, Lara Rodriguez (Hirukide), Maria Beriain (Hirukide) eta Aloña Lertxundi (Laskorain). Bigarren mai-

lan, olerkian, Martin Lopetegui (Hirukide), Ane Abalabide (Laskorain) eta Maider Del Nozal (Laskorain).

Hirugarren mailan, hizlauran, Ibai Esnaola (Orixe), Olaia Cuadrado (Laskorain) eta Marta Alonso (Laskorain). Hirugarren mailan, olerkian, Arian Urretabizkaia (Hirukide), Mireia Vicente (Hirukide) eta Irene Arin (Hirukide).

Laugarren mailan, hizlauran, Izar Agirresarobe (Uzturpe), Jone Amonarriz (Laskorain) eta Irene Hernandorena (Laskorain). Eta, azkenik, laugarren mailako olerki saileko sari bakarra Maria Asenjo-rentzat izan zen (Hirukide).



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **5 sarrera pare** ditu

Zezen errektariaren 5. lehiaketa 1. Semifinala

Ekainak 21 • Igandea • 18:00etan • Tolosako zezen plazan

